Bedarona.

Igaro dan igandeko nire idaztiaz zer jazo da? Lekurik ez edo argitalditeko bestian ez ete da egon ba? Irakuri enebanien ikaratuta geratu nitzan zer jazo ete dan, baña oingoan be or dua zeozer.

Loretako il samuŕari asiera ona baño obia emonak gara Bedaru'n. Elisia umez, emakumez, gizonez ta gaztez beteta ikusi genduanok, Ama garbiyanako zaletasuna Bedaru'n, zoriyonez, badaguala esan biarko dogu. Nai dau beste abestuten dabe gastiak eta guk zaŕok be bai, baña batez be Mariyaren alabak, Munduan ain gauza edeŕak ikusi ta zer ete da zerua!

Etxiak baŕiztuten.

Eŕi onetan keya darabile baten batzuk etxiak baŕistuten. Ondo egiña, zegaz ein daukonak eitekua da; guriak be bauko premiñia eskilara zaŕak dindilizka dagoz-da, alako baten neure anka zaŕok uts eingo dauste malan bat salto ta an noya ankaz gora ¡ayena penia! neupe einbiotset zarata an Ameriketan daukatazan seme-alabari, botaten bauste txindi apur bat eskilarak apur bet leututeko, emen ba sendo dautse ba Olzabaŕiko eta bai Piliaeneko eta Koskoŕoka'taŕok. Oin agur ba gustijori uŕengo arte.

BEDARUKO

Natxitua.

Oŕila eta emakumiak.

Zerbait aŕotu be egingo dira geure emakumiak, baña neuk emon aldeitzatezan eskeŕak ez dira naikua eurak egiten deuskuezan lan onurakoŕak ordaintzeko. Egunoro geure umetxuari kistiñau ikasbidia irakasten alegintzen dira eta Oŕila onetan gaubian-gaubian euren abesti samuŕakaz geure bijotzak alaituten dauskuez. Gora Natxitu'ko emakumiak.

Legortia.

Uda baŕi onetako legortia amaibakua da; arto indabak ereinda daukaguzan aŕen, gari eta bedar-lekuetan kalte andijak daukaguz. Jaungoikua gomutako al da gugaz.

Ezbiar bat.

Ezbiar bategaz eskuak zauritu dauz Alzola'tar Joseŕa Antoni'k. Ainbat lasteŕen osatu daitela.

Dabiltzanak.

Ameriketa'ra euren senaŕakana Mendiola'tar Demetria bere seme-alabatxu bijekin eta Bixenta bere semetxuagaz. Gudaritzara Monasterio'tar Sabino.

Ezkontza.

Mendialdian laster beste eskontza bat. ¡Au da eskondu biaŕa!

Izkirimirija.

Euzkadi'ko lur alde onetara eldu zan beiñ gaztelar eun (tela) saltzale bat. Baseŕirik-baseŕira ibilten zan bere eunak lepuan ebazala eta irabasi politak eukiten ebazan, baña asko neketan zan eta erabagi eban astotxu bat erostia. Erosi eban astua eta «bapo» ebilan arean nekau barik, baña irabasijak uŕitu ziran. Astuak jaten eutsanaz eta berak jan biar ebanagaz ezeban ezer auŕeratuten.

Bidian joiala aurkitu eban beiñ albaitera bat eta itandu eutsan osakirik ete eukan bere astua jan barik erabilteko. Laster igaŕi eban albaiteriak nor eukan auŕian eta bayetz erantzun eutsan; zortzi egunian jan barik euki egijala eta auŕerantzian ez ebala jatekorik biar.

Olan egiñ eban baña... ¡A zoritxaŕa! zaspigaŕen egunian il jakon bere astua. Eŕukaŕijak negar baten esaten eban ¡Por un día! ¡Por un día! Uste eban egun bat luzaruago bizi izan balitxako, gero etxakola ilgo.

KURUTZE-GANE

Elantxobe.

«Euzkadi-ostera»

eritxon orantzuko ibilaldian ez giñian gu juan, baña andik ibili jakun gure eŕitar baten bitartez, ostera oŕen gomutagaŕijagaz batera, Mungia'ko «Maŕe» neskatila ta eusko-idazle azkaŕaren agur bero ta adoregaŕija artun dogu. Asko atsegin izan jaku, ta bijotzetik eskartu dogu zure agur ori.

Gu baño lenagoko idazlia

zara «Mŕe», guk baño toki geyagotik agertu deuskuzu burua. Alkar ezagututen ez dogun aŕen, aspalditik gayatzuz zure zale-zalak. Zuk ixenpetutako idaz-lanik, ez dogu ondiño irakuŕi barik itxi. Saŕitan, beste askori irakuŕi eragiñaz, zure idazkijen zabaltzaliak izan gayatzuz. Zegaŕik ete dan?

Maŕasunak, «Maŕe», maŕiak

bardiñak aurkitu edo bardiñak egiŕen ei ditu-ta... zuk gugan aurkitu dozun zintzotasuna, guk zugan lenago ikusi dogulako izango da kontixu.

Zintzo jokatuaz,

jaŕaŕuteko dirauskuzu. Zeregin latza ta eskertxaŕeko eginbiaŕa dogun aŕen, oŕetan gara «Maŕe». Aixiak utzian aixiatutekotan, zelan idatzirik ez daukagu. Al dogun besteko gorularijak bagara be, gure artilak tajuz aritu gura gendukez. Agur

Gizonak be...

«Loretako» elizkixunetan, orantzu arte neskatilak izan doguz leurako abeslari. ¡Ganetikuak doguz! Aŕezkero, ostera, andik eta emendik, gaur batak eta bijak bestiak, kaletar eta aŕantzalien artetik, ez deuskue abeslarijak makalak urten. Gizonak, gabian «ku-ku» batzuk, eta «aŕantza asko egiŕen» baño ez ekijela, iñuan atzo batek bakar abesti gozuok entzun dituzan ezkero, gixonak goratu ezinda ei jabilku. Ba ondiñok oŕi atsotxua, azalera loratu jakun aŕaña baño ez dogu. ¡Eeeup Sabin, Eŕaimun ta enparauok. «Jo auŕera, egualdi edeŕa dago ta».

Kai aldetik, ura irakiñian

dabilela be entzun dogu. Aurtengo Deun Kepa egunerako «Orfeoiak» urten biar dabela diñoskue. Ogeiren bat aŕantzale gaztek ikasten asteko ustia daukela be bai, beste ainbeste gixonegaz, kaletaŕakin, ta neska-mutiltxuakin, zer edo zer baño geitxuago egin leikela deritxogu. ¡Edertasun guztiori egi biribil bagenduke, ¡gure poza!

Aŕañak arnasa

apur bat emoten deutsueneko, gabero, labuŕian ekiŕen badautsazue, laster zarie abestuteko gertuta. Azeri buzten oberik lumatu dozue...

Emen gaukazuez, idazkortza belaŕijan, okotzian eskua, zuen alegiñak eta gurendak txalotu ta goratu nairik.

Jayotza.

Kortatza'tar Pirmin eta Foruria'tar Laurentze, senar-emaztiak, izan daben alabatxu jayobaŕijari Miren Amagoia euzkel-ixenak ezaŕi dotsez. Zoronak, adizkide begikuak. E. A. B.'kuak: ume onentzako be, bialduko dozuez gero «azkatasuna» ikuŕindun atoŕatxuak, eta zapata-ozki orlei-zuri-udiñak. Bijar edo etzirako «gorulari» bat geyago.

LILI-EŕEKA

JANTZIAK
gizonentzako Teadoronian egingotzue iñun beizen ondo eta lauko asko kendubarik.
TOVALINA Y C.ª L. D.
SOMERA TT
BILBAO
Lenengo oñian sartukeria dendatik.

Eleiz - Jantzi ta urreginiza
A. Rui-Wamba
Eleizak jasteko biar dan gustia emen aurkituko dozue ona ta merke
Plaza Nueva, 10 Uŕutizkiña 14.238
BILBAO

GORUNTZ - GAYAK
Eunak, bale-bizaŕak, zumitz ugaŕ-gaitzak
Zubiri'tar Bingen
Artekale, 50 BILBAO

Eunak eta soñeko egiñak
Zeaŕa'tar Eŕupin
Tendería 15 Bilbao

Mañari.

Elizkixunak.

Ilaren lenengo barikuban, Josu'ren Bijotz gozo gozoaren aintzaz ta omenez Jaunartziak eta otoitzak egin ziran. ¡Aintza Bijotz deun-deunari!

Eta, igaroriko igandian, gure Gotzain agurgaŕijaren guramena betetutiaŕen, Joseba Deun andijaren saspi igandiak asi ziran emeko elexan be.

Juan-Etoŕijak.

Igandian egon ziran emen, bertako semia dan Amesti'tar Anastasi abertzale zintzua ta Izagiŕe'tar Jon Andoni.

—Areatza (Vilaro)'tik etoŕi zan bere senide bat ikertuten, Siefa'tar Bitor.

—Igande aŕatzaldian agurtu genduzan emen, Irastortza'tar Miren Begoñe, Eŕamone ta Aretiourtena'tar Susane neskatil abertzaliak.

Gexorik.

Egunokin gexorik aurkitzen da, «Labaŕondo-Eŕota»ko Belakortu'tar Jon gixona. Arin eta ondo osatu Jon.

Erijotza.

Lengo astian il zan Durango'n, Gorostitza'tar Sabiñe, emeko «Labea» etxian luzaroan bixi ixanikoa. Jaunak zeruan euki begi.

Lugiñak.

Lengo egunetan, gure lugiñak, arto ereŕiak eta abar egiŕen, alper usain andi barik ibili dira.

Zizak.

Udabaŕiko jaki gozuok, lur-ganeratzen asi dira. Lenengo, beti lez, banaka-biñaka, ta gero ugerijago be bai. Lenengotan agertzen diranak gozoenak.

Jazorikua.

Bein, emeko andra batek, Abadiño'ko Balasi deunaren perijan, asto bat erosi eban. Eta erosiriko astua sokatik ebala iluntzijan etxeratu zanian, bere senaŕari pozez esan eutson.

—Zu, gixon, emen dakat ba, astue dotorie ta edeŕa.

Eta, gixonak, astuari ule gustijak zenbatuteko moduan, ziatz be ziatz begiratu ostian itandu eutson.

—¿Zenbat ordaindu dozu?

—Ogei ogerleko.

—¡Onako denganiñoik...! Au asto ziztrin kaskaŕau ogei ogerleko ordaindu dozula? Oingo andren burubak eta izki (letra) bako liburuak, bardin-bardiñak dira...

MAÑARIKO

Marin eta Goikolea
(len Apellaniz y C.ª)
Santugintza; Altara, Pulpito, Konfesonario ta eleizetarako beste zul-lanak
Castilla, 31 VICORIA

Urkiola.

Aspaldi ontan ixil zamar egon naiz Urkiolako izpaŕak biraldu gabe geure «EKIN» asteroko izpaŕingi maŕe ontara, Ezta izan aiztute nagolako, baña bai neure lanak onetarako astirik emoten eztustelako; auŕerantzian aleginduko naiz aztero aztero Urkiola'ko izpaŕak biralduten. (1)

Abertzaliak Urkiola'n.

Lengo astian Oŕila'n lenengo egunian Bilbao ta Durango'tik abertzale asko eldu ziran Urkiola gañera emen egun alai bat igarotera. Alan Jauna'k nai izanik, guztiz eguraldi edeŕa egin eban. Saŕi-saŕi etoŕi Urkiolaruntz, zuek emen ikustian benetan poztuten gara-ta.

Juan-etoŕi.

Markin-Etxebaŕi'tik etoŕita, emen egon da, aztia beren etxekoen artian igaroten, Ibarzabal'tar Markelin abade jauna.

Gazteiz'tik Bizkaŕa'tar Sabin mutiltxua; Durango'ra juan ziran Ibarzabal'tar Jone eta Kepa ixeko-lobak; Arkaola'tik Elexpe'tar Ixidor etxagun naguzia.

Oŕila'ko Lorak.

Urtero lez ospatasun aundijagaz aŕatsaldeko zazpi ta erdijetan egunero egiŕen dira; baŕa ilen lenengo barikuban, beste guztietan lez, elizkizun edeŕan egin zan; goizian Jaupa edeŕa txauneskin ta abesti edeŕakin, aŕatsaldian agurtza Deuna Jauna agirien zala.

Eguraldija.

Aspalditxuban luŕak ondo siketuta egon dira alan baseŕi-lanak eiñ eziñik asko-eta-asko aurkitzen izan da, baña orain aste ontan goi-aldian beintzat bastaŕok ondo busti dituz Jaunari ezkeŕak.

ITUŕIOTZ

(1) Tire ba. Oin batez be Deun Andoni jayak be bayatortzuez d», an'ik auŕera izpaŕgayak izango *dira tontor* oŕetan.

Mendeja.

Susendari yaunaren baimenagaz banatortzue eŕitaŕak lenengo aldiz idaztera baña lenengotatik erabagi senduagaz auzar-antzian be yaŕaituteko, l ngoen antzian kuku einda geratu barik. Ia ba eŕitaŕak yagi zaiteze, lo egon barik, emen gara-ta.

Loretako ila

dan ezkero gure eŕiko neskatila edo Mariaren alabok edertotxu abestu dauskue ta gogoan artu dautsek neuk beintzat,

Zeruko Ama
Izar argia
Zeugana gatoz
Poz-pozik
Geure biotzak
Artu egizuz
Zaindu gagizuz Zerutik.

Ze gauza egokiya eta abesti samuŕaorik beori baño gure Amarentzako ez asko.

Eriotza.

Gaur obiratu yaku Eiguren'tar Prantzisko, G B. beren seme tasenidiari laguntzen dautsegu atzekabietan.

Notintza andiya izan da beren obiratzian.

Jayotza.

Laka'tar Luke'k eta beren emaste Eustake'k euren sendia alabatxu baŕi bategaz geitu dabe eta ugutzaeran Nekane euskal izen polita esaŕi dautse. Zorionak gurasuai.

ABEŕI

Oñetako ta puntozko gauzak
Ugari, onak eta merke
EUZKERAZ ITZ EGITEN DA
BENGOA'TAR MATIAS
Artekale, 1 eta 7 BILBAO

Akorda.

Juan etoŕijak.

Amerika aldian urte batzuk igarota, boztekua estutu dautsogu Alegria 'tar Joseba mutil zintzuari.

Egotaldi bat Bilbao'ko Beltran'en osategijan bere alaba Dunixegaz eginda, emen agurtu dogu Barinaga'tar Miren. Gescual bera be aste onetan datoŕela osatuta dirauskue. Atseginduten gara.

Juan yaku berton egotaldi edeŕa igarota, Neguri'ra Gorostiaga 'tar Iñaki mutil azkaŕa. Oudo ibili ortik eta ez aiztu berton egin dozuzan eup... adakin.

Egualdija.

Ezkaituk asaŕe oingoxian lugiñok. Au dok euri gazatzuel onen oztian bai arua zokil auzteko ¡e mutil!

Sorkunde Garbijaren ilan ozte aundija elduten da gure txadonara, Sortzez Garbijaren lorak egitera entzunik bertan abesti zamuŕak jaŕatu olantxe auŕera.

GORANE

Mungia.

Meñaka'ko Eleiz-Alderi.

Emakume on arduratsuoi: Diñosu oraintsurengo EKIÑIAN; «...batzar bat egin-da esan dogu danok Mariaren Alaba sartu bear dogula, jolas loi ta aŕisku sikiñetatik alde egiteko; baña diabruak bota dausku Mungia'ko emakume bat belguntza oŕetara, esaten guri, euren eŕijan be badagozala Mariaren Alabak, baña jolastutia libre dagoala; ta nire eŕitar emakume lagun batzuk Jaunaren berbizkunde jaiaren begira egon dira jolastuteko».

Eleiz-alde, ondo egin dabela uste dot zure lagun oŕek (alan edo onelan gastiak jolastu biar dira-ta) baldin dantza baltzian edo naztuan jolastu ezpadira.

Mungia'ko Miren-Alabak *libre* dauke, lotsa onian, dantza *libria* egitia.

Debekauta dauke, pelota-toki nai beste edozein toki saŕatuan egitia.

Baita debekauta dauke edonun be, dantza laztanduan jolastutia.

Alan ba, Meñakara, Mungia'tik diabruaren *eŕekadutxuagaz* iñor joan baiatsuen, ez zeuntsen iaramonik egin biar, diabrua guzuŕaren aita da-ta.

Baiña, Eleiz-alde, zure idaztian ilun umetxu bat aurkitzen dot ezin argitu dodana, eta bildur naz zure lagun Meñakaŕok dantza aŕotz-baltz edo dantza baltzian jolastu ete diran edo.

Ori jazo bada, zure lagunoen belguntzaldiko erabagiok, beŕogei kartakaz mai-gañian umiak jaso oi dabezan *kanpantoŕiak*-lezkoak izan dira. Puts gitxi biaŕekoak luŕa joteko.

Olan dala, ez dauko diabruak Mungiako emakumarik bialdu biaŕik.

Bere pilarmonika edo auzpuaren arnasatxu bat dau azko orko kartazko *kanpantoŕiok* botateko.

Dan lez dala, zuk, Eleiz alde, ekin euzko-baratzetik bedar txar ori kenduten.

Orixe da Mungi'ko ta Meñaka'ko neskatilok beti ein biar doguna.

ELIZALE

Muxika.

Miren deunaren ilean gara eta jente talda edeŕa gabiz eleizkizunetara, bai igande eta astegunetan be, goix eta ilunkeran. Emengoak bakaŕik ezkara eguneroko jaupara juaten garianak. Entzun dot Areatza'n be egunero juaten dirala gaste pilotxubak; jaŕaitu dayogun gustijok.

Igaro dan igandean Eleix nagosi onetan ospatu ziran Basabe'tar Ramon'en arimen onŕak Eŕi onetako osalari dan Jauna ta sendia artu egizue gure tamal-aguŕa.